



7. Kristauen zeregina Herrien askapenerako bidean

El compromiso de los cristianos
en el camino de la liberación
de los Pueblos

Paulo Agirrebaltzategi

Herriaren kontzeptu eta definizio asko daude. Horien artean bi nabarmenduko nituzke hemen: 1. Administratiboa eta legala: Estatuak administratzen dituen “herritaren” multzoa... Horren izenean, frantziar herria –”peuple français”– dago; baina ez dago korsikar herririk (berriki Frantziako legeak erabaki berri duenez). 2. Antropologikoa eta kulturala: “Herria da lurralde jakin baten edo bestelako inguruneraren baten barruan, kultura eta tradizio historiko berezia landu duten lagun-taldea” (CONSEU, *Herrien Eskubide Kolektiboen Aldarrikapen Unibertsala*, 1. art., 1991).

Herriaren bi kontzeptu hauek ez dira bakarrik ezberdinak; batzutan elkarren kontrakoak gertatzen dira. Eta Herrien askapenaz mintzatzen garenean, hain zuzen ere, normalean bi kontzeptuak aurrez urre gertatzen dira. Estatuak Herria-Estatua kontzeptua ezartzen duenean, Herria-Etniak ukatzera jotzen duelako, Herriaren lehen kontzeptuaren izenean, hain zuzen: ukatzera eta zapaltzera, minorizazio-prozesuaren bitartez. Estatuak etniaren bat ezarritako gutxitze eta gutxiespen –minorizazio– horretatik ateratzeko bidea da, izan ere, Herriaren askapen-prozesua.

Minorizazioak edukin politikoa, kulturala eta linguistikoa izan ohi ditu: dena botere ekonomikoan oinarrituta, hori baita estatuaren botere-aparatuaren (ideologikoaren, kulturalaren eta politikoaren) oinarria.

1. Minorizatua eta minoritarioa

Demokrazia liberal eta parlamentarioak gehiengoan (“maiorien”) eta gutxiengoan (“minorien”) artean jartzen du joko politikoa.

Herri minorizatuari ere joko hori bera ezarri ohi zaio. Honela herriaren minorizazioa estali nahi da maioria-minoria ustezko “joko demokratiko” horren azpian. Joko horretan, ordea, herri minoritario-minorizatuak ez dauka iltenbiderik.

Baina estatu-nazio modernoen barruko Herri historikoak horien aurretikoak dira; eta haiek ezarritako joko liberal-demokratikoaren (!?) aurretikoak dira Herrien jatorrizko eskubide kolektiboak. Funtsean esan beharra dago ez dagoela, egon, Herri minoritariorik.

Herria ez da inoiz kolektibitate handiagoren baten barruko txikiengoa. Gehienik ere kolektibitate minorizatua izango da, maioritariotzat jotzen den nazio-estatuaren barruan eta azpian.

Herria-etnia Herria da, eta kitto. Maioria-minorien jokitik kanpo dago, berez; kanpotik bakarrik ezarri ohi zaio, hain zuzen ere, joko hori.

2. Kristauaren aukera Herri minorizatuaren alde

Kristauarentzat askapena zapalduaren, minorizatuaren –pobrearen– aukera egitea da, hasteko. Aukera horretan bakarrik oinarri daiteke kristauarentzat askapena.

Beste edonork bezala, eta bere kontzientziaren arabera, kristauak ere ongi derizkion bide politikoak har ditzake Herrien askapenerako bere ahaleginean. Alde horretatik eta maila horretan ez dut uste kristauak bere zeregin espezifikorik duenik; eta Herrien askapenaren alde dihardutenekin batera ahalegindu beharko du.

Baina kristauak badu bere oinarria eta leku espezifikoa ere Herrien askapenaren alde saiatzeko: bere fedea eta bere fededunen komunitatea.

Hiru urrats nabarmendu nahi ditut hemen zeregin espezifikorik horretan:

1. Kristauak bere askatasuna bilatu, baieztatu eta bizi behar du bere Elizan. Bere askatasun-lekua ez baldin badu fededunen elkarte, nekez ahaleginduko da Herriaren askapenerako, kristaua den aldetik.
2. Elizaren askatasunaren alde saiatu behar du... Eliza “estatalista” da: estatuaren egituretan oinarritu eta konfiguratu ohi da, Konstantino-ren garaitik hona. Horrek estatuaren botere-aparatuarekin bat egitera bultzatzen du. Eta ondorioz estatuaren aldetiko minorizaziotik askatzeko ahalegintzen ari diren Herrien borrokak nekez ulertzen ditu; edo ulertzen baditu, nekez defenditzen ditu benetan; edota hitzez eta printzipioz defenditzen baditu ere, nekez inplikutzen da borroka horiean... Estatuarekin lotuegia dagoelako. Kristauaren eginkizuna da bere Eliza estatuaren botere aparatutik eta egituretatik askatzea.
3. Ondorioz, bere kristau-komunitatetik eta kristau-komunitatearekin batera, ulertuko, aldarrikatuko eta defendituko ditu kristauak Herriaren eskubide kolektiboak eta horien alde borrokatuko.

3. Herrien askapenaren hiru mailak

Askapena ez da kontzeptu negatiboa: ez da inoren morrontzapenetik ateratze hutsa. Kontzeptu positiboa da oso-osorik. Herrien askapenari dagokionez, hiru maila bereiz genitzake:

1. **Onarpena:** Hau da, estatuen eta beste Herrien aldetik onartua izan, beraren duintasunean, hau da, Herritzat onartua izatea, eta ez minoria sozial eta politikotzat. Berdintasunaren eta ezberdintasunaren kontzeptuak biak dira giza eskubideen eta eskubide kolektiboen oinak: gizakien eta Herrien –eta horien kulturen eta hizkuntzen– arteko funtsezko berdintasuna onartu, batetik, inor ez minorizatzeko; eta bestetik, gizakien eta Herrien ezberdintasuna (kulturazkoa, hizkuntzazkoa, etab.) onartu, inor ez diskriminatzeko, dituen ezberdintasunagatik. –Elizak badu mezurik eta doktrinarik Herrien eta hizkuntzen berdintasunari eta ezberdintasunari dagokionez. Hor oinarritu behar du kristauaren ihardunak eta ahaleginak–.
2. **Baieztapena.** Bigarren urratsa Herrien baieztapena da, beren buruekiko. Horren ondorioa da autodeterminazio juridikoa eta politikoa. Herrien eskubide kolektibotzat onartua dago nazioartean autodeterminazio-eskubidea.
3. **Partaidetza.** Askatasunaren muina dira komunikazioa eta partaidetza: gizabanakoaren mailan eta giza-taldearen mailan. Giza komunitatean eta Herrien komunitatean, berdintasunean eta ezberdintasunean, partaidetzarik ez badago, edukinik gabekoa da askatasuna. Autodeterminazioa ez da ‘separatismoa’, ez insolidaritatea, edota bazterrean gelditzea. Beste Herri guztiekin munduko gizakien eta Herrien komunitate handia osatzeko eta eraikitzeko oinarria da autodeterminazioa.

4. Herrien Europa

Topaketa hauen aztergaia eta eztabaidagaia argia da: “Herriak eta Estatuak Europaren eraikuntzan”. Beharrezkoa deritzot nere gogoetatxo hau horren barruan kokatzeari.

Europa bere batasuna bilatzen ari da. Zein batasun modu, ordea? Estatu-aparatuen arteko gainaparatua? Munstro ikaragarria sor daiteke hortik. Zein leku daukate hori osatzean Europako Herriek, edo komunitate linguistiko-kulturelek? Europaren benetako Komunitatea Herrien artean bakarrik eraiki daiteke, horien berdintasuna eta ezberdintasuna aitortuz, defendituz eta baliatuz.

Desafio handia da... Baita kristauontzat ere. Europako Oinarrilko Kristau-Elkarteek beren erantzukizun aparteko dute horri begira. Herrien Europaren al-

deko aurkera garbia egin beharko lukete Europako Oinarriko Kristau-Komunitateek: Horien hizkuntzen eta kulturen arteko Europaren alde.

Badut susmoa oraindik landu eta sakondu eta zabaldu beharrekoa dela kontzientzia hori. Azken batez, Herrien eskubide kolektioen jaberazpena da landu, sakondu eta zabaldu beharrekoa. Hau bezalako topaketa gehiago beharko dira agian.

Euskal Herriko eta estaturik gabeko beste Herrietako Oinarriko Kristau-Elkar-teek, beren aldetik aukera garbia eginda gero, argi eta tinko jokatu beharko dute aurrera begira, Herrien eskubide kolektikoen eta askapenaren mezuari buruz beste Komunitate guztiak ere jaberazten; eta denen arteko gogeta eta ez-tabaidaren barruan sarrerazten.

Dena dela, Euskal Herriko kristauon —eta bereziki Oinarriko Kristau-Elkar-teen— eginkizuna eta erantzukizuna hemen bertan betetzekoa da aurren-aurre-nik. Herri honek eta gizarte honek daramaten askapen-ahaleginean partaide iza-nik, eman ahal izango dute beren esperantzaren berri, etsipenean erortzeko arriskuan dagoen une honetan itxaropen berrituaren argia eta kemena ipiniz.

Resumen

Entre los muchos conceptos que encierra el término Pueblo, hay dos que históricamente a veces se contraponen: El pueblo como colectividad de los ciudadanos de un Estado-nación, y el Pueblo-Etnia, sujeto de derechos colectivos, tal como lo definió en su primer artículo la *Declaración Universal de Derechos Colectivos de los Pueblos*, de CONSEU (1991): “Cualquier colectividad humana que tenga una referencia común a una cultura y una tradición histórica propia, desarrolladas en un territorio geográficamente determinado o en otros ámbitos, constituye un Pueblo”. Se contraponen los dos conceptos, desde que el Estado moderno ha querido imponer su ley de mayorías y minorías a los Pueblos, sometidos a un Estado, y sin propia estructura política estatal.

Un Pueblo-Etnia no es, sin embargo, nunca una minoría: es un Pueblo, sujeto colectivo de derechos anteriores al Estado, y a su juego, pretendidamente democrático, de mayorías y minorías. En todo caso, será un Pueblo minorizado.

Al cristiano, sobre la base de su opción por los pobres y minorizados, le corresponde también hacer una opción por los Pueblos minorizados, y comprometerse por su liberación, juntamente con los demás que luchan por la misma causa, y desde su propia comunidad cristiana. Para ello, tendrá que buscar, crear un lugar de libertad en su comunidad de fe y liberar a la propia Iglesia de las ataduras que históricamente la ligan a las estructuras estatales.

El camino de liberación de los pueblos debe recorrer los tres niveles del reconocimiento de la identidad de los Pueblos y de sus derechos colectivos, su afirmación colectiva y su autodeterminación jurídico-política, y su efectiva participación de todos ellos en la construcción de la comunidad humana.

Es ahí donde hay que situar también el lugar de los Pueblos de Europa en una construcción de la Comunidad Europea de los Pueblos. Y es ahí donde las Comunidades de Base de Europa, y en particular las Comunidades de los Pueblos sin Estado, tienen una responsabilidad y un quehacer específicos, para hacer su propia “opción por los pueblos minorizados” y “dar razón de su esperanza” en el compromiso efectivo por su liberación.